

MAHAI SEKTORIALA 2021-11-12

Mahai sektorialean ordezkaritza dugun sindikatuok eta Hezkuntza Departamentuak honako gai hauek landu ditugu:

1- Hezkuntzako kontseilariaren Foru Aginduaren zirriborroa, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko ustekabeko ikuskatzaileen lanpostuak betetzeko izangaien zerrenden eraketa, antolamendua eta kudeaketa arautzen dituen.

Plazak: 12.

Zerrendak: Oposaketa prozesuaren eta kontratazio zerrenden arteko binkulazioa mantentzen da. EPEaren ondorioz sortuko diren zerrendak hurrengo ordenean; 1) EPEa gainditu baina lanposturik gabe gelditu direnak (probaren 3 atalak gainditu dutenak), 2) 3 ateletatik 2 gainditu dutenak, 3) 3 ateletatik 1 gainditu dutenak, 4) Zerrenda espezifikotik sartzen direnak.

ELAren eskaerak:

- **Ikuskatzaileen** kidegoko **behin-behineko langileen ehunekoa ezagutzea** eskatzen dugu.
- ELAren ustez, izangaien zerrenda bateratu bakarra egon beharko litzateke, eta bertan zehaztu beharko litzateke izangaiak euskara eskakizuna duen ala ez, zerrendak hizkuntzaren arabera banatu gabe. Gure ustez, proben deialdi espezifikoetan irizpide bera aplikatu beharko litzateke.
- 5. artikuluan, **plazarik gabeko gaindituen zerrenden ordeza, I. eranskinaren antzeko merezimenduen baremoari erantzuten dion zerrenda integratu bakarra egon beharko litzatekeela** uste dugu, oposizioa gainditu izana puntuatuz, baina ikuskatzaile gisa izandako esperientziari pisu nabarmena eman.
- ELAri funtsezkoa iruditzen zaio **izangaien zerrenda ondo hornituta edukitzea**, kontratazio berezietara iritsi beharrik ez izateko. ELAren ustez, kontratazio-bide hori ez da egokia, eta, beraz, ez da erabili behar.
- Deialdi espezifikoetako **probaren 3 zatiak ez lirateke kanporatzaileak izan behar.**
- ELAren ustez, **ikuskatzaile gisa izandako irakaskuntza-esperientziak pisu handiagoa izan beharko luke merezimenduen baremoan.** Beraz, II. atalean (Hezkuntza-administrazioan beste lanpostu batzuk betetzea), uste dugu ustekabeko ikuskatzaile gisa emandako urte bakoitzeko gutxienez puntu 1 lortu beharko litzatekela, eta atal honek ez duela gehieneko puntuazio-mugarik izango.

2- Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Hornitzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpenaren zirriborroa. Ebazpen horren bidez, ikastetxeetan berariazko proiektuak edo programak aztertu eta ezartzeko lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan betetzeko merezimendu-lehiaketarako deialdia egiten da.

Hezkuntza Departamentuak **64 proiektu** edo **programa proposamen** jaso ditu. **Argitalpena** eta **eskaerak abenduaren hasieran** egitea aurreikusten da, eta proiektuak **otsailean** bere **defentsa**.

ELAren alegazioak:

ELAren ustez, **ikastetxeetan proiektuak edo programak ezartzeko zerbitzu-eginkizunek hezkuntza-zentroen behar espezifikoak baino ez liekete erantzun behar.** Baina, gure ustez, zerbitzu-eginkizun horiek maizegi erantzuten diete izangaiek zentro jakin batzuetan egoteko dituzten premiei (deialdiaren betekizun espezifikoak bat datoz interesdunen profilarekin, eta horiek beste destino bat lortzen dutenean, desagertu egiten da zentroaren beharra, gehienetan...). Horrek zentroetan sare klientelarrak sortzea eragin dezake.

Arazo horri aurre egiteko, **ezinbestekoa da funtzionarioen egonkortasun- eta mugikortasun-beharrei beste bide batzuen bidez erantzutea.** Funtsezkoa da plantilla organikoa ahalik eta gehien hurbiltzea funtzionalera. Horrela, lekualdatze-lehiaketan plaza gehiago eskaini ahal izango lirateke, funtzionarioek behin betiko destinoa lehenago eskuratu ahal izan dezaten (batzuek urteak pasatzen dituzte hori lortzeko) eta zentro batetik bestera erraz mugitzeko aukera izan dezaten.

3- Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Hornitzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpenaren zirriborroa. Ebazpen horren bidez, irakasleei laguntzeko zentroetan (ILZ) aholkularitza- eta zuzendaritza-lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan betetzeko merezimendu-lehiaketarako deialdia egiten da.

Lanpostuak:

ADSKRIPZIOA	LANPOSTUA	PLAZA	HIZKUNTZA
Centro de apoyo al profesorado- Lekaroz	Zuzendaritza	1	Euskara
Centro de apoyo al profesorado- Pamplona	Aholkularitza. Lanbide Heziketa	1	Gaztelania
Centro de apoyo al profesorado- Pamplona	Aholkularitza. Eremu soziolinguistikoa	1	Euskara
Centro de apoyo al profesorado- Pamplona	Aholkularitza HH-LH	1	Euskara
Centro de apoyo al profesorado- Estella	Aholkularitza	1	Gaztelania

Aurreikusten da **argitalpena** eta **eskaerak abenduaren hasieran** izango direla.

4- Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan (EIBZ) lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan betetzeko merezimendu-lehiaketarako deia egiten duen Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Hornitzeko Zerbitzuko zuzendariaren Ebazpenaren zirriborroa.

Lanpostua:

ARLOA	LANPOSTUA	PLAZA
Información y Medios: Documentación y materiales educativos	Maestro/a, Catedrático/a, Profesor/a de Enseñanza Secundaria	1

Aurreikusten da **argitalpena** eta **eskaerak abenduaren hasieran** izango direla.

5- Besteak

ELAren eskaerak:

- **Prestakuntzako Zerbitzu Berezien** deialdia NAOn noiz argitaratuko den eskatzen dugu. Hezkuntza Sailak jakinarazi digu 2022ko lehen sei hilekoan izapidetuko dela, 2021/09/01ean hasi ahal izateko
2022ko lehen hiruhilabetean izapidetuko da, 2021/09/01ean hasi ahal izateko.
- **Haur eta Lehen Hezkuntzako 2022ko EPEa:**
Hezkuntza Departamentuaren asmoa 2022ko ekainean egitea da, baina gaur egun ezin dute ziurtatu. Azken erabakia Gabonak baino lehen jakinaraziko digute.

Nafarroa 2021-11-13

MESA SECTORIAL 12-11-2021

Los sindicatos con representación en la mesa sectorial y el Departamento de Educación hemos tratado los siguientes temas:

1- Borrador de Orden Foral del Consejero de Educación, por la que se regula la configuración, ordenación y gestión de las relaciones de aspirantes al desempeño de puestos de inspectores accidentales.

Plazas: 12

Listas: se mantiene la vinculación entre el proceso de oposición y las listas de contratación. Las listas que se van a crear como consecuencia de la OPE se regirán en el siguiente orden; 1) las que han superado la OPE pero se han quedado sin plaza tras superar las 3 partes de la prueba), 2) las personas que han aprobado 2 de las 3 partes, 3) las personas que han aprobado 1 de las 3 partes, 4) las personas que acceden desde la lista específica.

Solicitudes de ELA:

- Solicitamos **conocer el porcentaje de interinidad** en el cuerpo de **inspectores/as**.
- ELA considera que **debería haber una única lista integrada de aspirantes**, en el que se especifique si la persona aspirante tiene requisito de euskera o no, sin llegar a desdoblarse las listas por idioma. Defendemos que en las convocatorias específicas de pruebas se debería de aplicar el mismo criterio.
- En el Artículo 5, en vez de listas de personas aprobadas sin plaza, ELA considera **que debería haber una única lista integrada que responda a un baremo de méritos similar al Anexo I en el que se puntúe el haber aprobado la oposición**, pero que se le dé un peso determinante a la experiencia como inspector/a.
- Para ELA es fundamental **tener la lista de aspirantes bien nutrida** para no tener que llegar a las contrataciones singulares. No consideramos adecuada esta vía de contratación, por lo que nos parece que hay que evitar utilizarla.
- **Las 3 partes de la prueba de las convocatorias específicas no deberían ser eliminatorias.**
- ELA considera **que la experiencia docente como inspector debería tener un mayor peso en el baremo de méritos**. De modo que en el apartado II.-Ejercicio de otros puestos en la Administración educativa, consideramos que por cada año como inspector accidental se debería puntuar 1 punto como mínimo, sin que este apartado tenga un tope de puntuación máxima.

2- Borrador de la Resolución de la Directora del Servicio de Selección y Provisión de Personal Docente del Departamento de Educación, por la que se convoca concurso de méritos para la provisión, en régimen de comisión de servicios, de puestos de trabajo para el estudio e implantación de proyectos o programas específicos en centros docentes.

- El Departamento de Educación ha recibido **64 propuestas** de proyectos o programas.
- Se prevé que la **publicación** y las **solicitudes** sean a **principios de diciembre** y la **defensa** de los proyectos en **febrero**.

Alegaciones de ELA:

ELA considera que las comisiones de servicio para la implantación de proyectos o programas en los centros **solo deberían responder a las necesidades específicas de los centros educativos**. Pero nos parece que con demasiada frecuencia este tipo de comisiones de servicio **responden a las necesidades de las personas aspirantes de permanecer en determinados centros** (los requisitos específicos de la convocatoria se ajustan al perfil de las personas interesadas, cuando estas obtienen otro destino desaparece la necesidad del centro en su mayoría...). Lo que puede llevar a originar **redes clientelares en los centros**.

Para hacer frente a este problema es imprescindible **dar respuesta a las necesidades de estabilidad y movilidad del personal funcionario mediante otras vías**. Es fundamental **acercar al máximo la plantilla orgánica a la funcional**. De esta manera se podrían ofrecer más plazas en el concurso de traslados para que el personal funcionario pueda adquirir destino definitivo antes (algunos/as pasan años para conseguirlo) y se pueda mover de un centro a otro con mayor facilidad.

3- Borrador de la Resolución de la Directora del Servicio de Selección y Provisión de Personal Docente del Departamento de Educación, por la que se convoca concurso de méritos para la provisión, en régimen de comisión de servicios, de puestos de trabajo de Asesoría y Dirección en los Centros de Apoyo al Profesorado (CAP).

Puestos de trabajo:

ADSCRIPCIÓN	PUESTO	PLAZA	IDIOMA
Centro de apoyo al profesorado- Lekaroz	Dirección	1	Euskara
Centro de apoyo al profesorado- Pamplona	Asesoría FP	1	Castellano
Centro de apoyo al profesorado- Pamplona	Asesoría ámbito socio lingüístico	1	Euskara
Centro de apoyo al profesorado- Pamplona	Asesoría Infantil y Primaria	1	Euskara
Centro de apoyo al profesorado- Estella	Asesoría	1	Castellano

Se prevé que la **publicación** y las **solicitudes** sean a **principios de diciembre**.

4- Borrador de la Resolución de la Directora del Servicio de Selección y Provisión de Personal Docente del Departamento de Educación, por la que se convoca concurso de méritos para la provisión, en régimen de comisión de servicios, de puestos de trabajo en el Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa - Centro de Recursos para la Enseñanza de Euskera (EIBZ).

Puesto de trabajo:

ÁREA	PUESTO	PLAZA
Información y Medios: Documentación y materiales educativos	Maestro/a, Catedrático/a, Profesor/a de Enseñanza Secundaria	1

Se prevé que la **publicación** y las **solicitudes** sean a **principios de diciembre**.

5- Otros asuntos

Solicitudes de ELA:

- Solicitamos la **fecha de la publicación** de la convocatoria en el BON de los **Servicios Especiales de Formación**. Educación nos ha trasladado que se tramitará durante el primer trimestre de 2022 para poder empezar el 1/09/2021
- **OPE Educación Infantil y Primaria 2022:**
La intención del Departamento de Educación es realizarlas en junio de 2022 pero no lo aseguran. La decisión final nos la trasladarán antes de Navidad.